

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Proiektu hau aurrera eramateko, oso garrantzitsua da funtsezko elkarte baten beharra. Negozio eredu batek ongi funtzionatuko badu hornitzaile eta bazkideen sareak osatu behar ditu. Enpresa batek beste batzuekin aliantzak eta proposamenak egin behar ditu, horrela optimizatu baititzakegu negozio-ereduak, arriskuak murriztuz eta baliabideak eskuratuz.

Hau dena kontuan hartuta, tren enpresa baten laguntza beharko genuke. Horretarako, bertan dugun tren lantergi on eta nazio artean punta-puntakoa den enpresa baten laguntza bikaina izango litzateke. Trenak egiten dituen enpresa oso ona da CAF baina hala ere energia berrerabiltzeko beste enpresa bat beharko genuke. Hau ikusita oso gertu, enpresa on eta hedatu bat dugu gai honi lotuta, eta honen izena INDAR da. Bi enpresa hauek oso hedatuta daude beraien proiektuetan eta oso seguruak dira, beraz guretzako abantaila handi bat da gure arriskuak murrizterako orduan.

Gainera, behar ditugun baliabideak eskuratzeko, dena bertan dugu, trenak, helizea... Bestalde aliantzaren bat ere sortu dezakegu beste hainbat enprekin, eta hori dena gure onurako izango litzateke, eta asko lagunduko liguken proiektua aurrera ateratzerako orduan.